



Getxoko migrazioen harrera eta arretarako Bulegoa

#GetxoBiziEzazu

Doako alea

>> Azaroa 2022



2020-2023 urteen arteko Udal Legegintzaldi Planak ezartzen duenez, Getxoko harrera-hiria izan nahi du eta, horrenbestez, 2021eko agintaldian zehar parte-hartze izaerako diagnostikoan aritu gara lanean, bai eta une honetan amaitzen ari garen horren ondorengo harrera-planeari ere. Migrazioen harrerarako eta arreta emateko bulegoa da prozesu horretatik eratorri den ekintza garrantzitsuenetako bat.



Udaletxean uste dugu pertsonen harrera erantzukizun publikoa dela eta, beraz, garrantzitsua da nabarmentzea honako gai hauek jorratzen gabiltzala, gure udalerriko onuragarriak direla baiteritzogu, hain zuzen ere, abegi ona, herritar guztientzako aukerak bilatzea, eta aniztasunaren aitortza.

Kulturarteko hiria izan nahi dugu, elkarrekintza positiboak dituen, partekatutako kultur adierazpenak sortzeko gai dena, aniztasuna baliabidetzat jotzen duena arazotzat hartu beharrean, eta elkarrizketa eta errespetua oinarri hartuta batera aurrera egiten duena.

Ibilaldi horren ondoren, hurrengo hilabeteetarako ezarri ditugun helburuak honako hauexek dira: sare sozialetan ditugun jarraitzaileen kopurua handitzea, zerbitzua hobeto ezagutu dadin eta horren beharra duten pertsona gehiagorengana heldu ahal izateko udalerriko elkarte eta udal-arlo gehiagorekin koordinatu ahal izatea; eta eguneratutako eta kalitatezko informazioa giro atseginean eskaintzen jarraitu ahal izatea, hori baita harrera-plana egiteko inkestetan parte hartu duten herritarrek gehien baloratu duten alderdietako bat.

Carmen Díaz,
Gizarte Kohesioko zinegotzia

Getxoko Migrazioen harrerarako eta arreta emateko bulegoa 2021eko uztailan sortu zen zerbitzua da, askotariko zerbitzu publiko eta gizarte-erakunderekin lankidetzan, honako hauek eskaintzen dituen: informazioa, aholkularitza eta laguntza nazioarteko mugikortasun-prozesuetan dauden pertsoneri.

Zentzu zabalean ulertzen da harrera eta, hortaz, orientazioa behar den prozesuko edozein unetan erabili daiteke zerbitzua.

Era berean, arreta ematen zaie migrazioei lotutako gaietan (atzeritarrak kontratatzea, alokairuak, etab.) laguntza behar duten getxotarrei, bai eta emigratzeko proiektuak dituzten eta helmugako herrialdean eman beharreko urratsen gaineko informazioa eta/edo orientazioa behar duten pertsoneri ere.

ZERBITZUAK

Lehenengo harrera-zerbitzua: bulegora heltzen diren pertsonen lehenengo kontaktua eta gainerako zerbitzuetarako sarbide-puntua. Helburua da erabiltzaileari ongietorria ematea eta udalerrinari nahiz bertan dauden baliabideei buruzko informazio orokorra ematea. Horrez gain, erantzun pertsonalizatua emango zaie planteatutako beharrian eta eskariei: izan daiteke informazioa, orientazioa edo bulegoan nahiz hirian zehar [osasun-sarea, gizarte-laguntzarako sarea, hezkuntza-zerbitzuak, hizkuntzaren ikasketa, erakundearen sarea, oinarritzko kudeaketa eta izapideak (erroldatzea, osasun-txartela, etab.)) eskaintzen diren zerbitzuetara bideratzea.

Eskubideak eskuratzeko **zerbitzu espezializatua:** zeharkako zerbitzua da eta atzeritarrak izateak jarraian adierazitako gaietara eskubideak baliatu ahal izatea zailtzen dituen kasuak jorratzen ditu.

- Atzeritartasunari eta nazioarteko babesari buruzko araudia.
- Langile atzeritarraren izaera, etxeko lanean eta zaintza-lanean arreta jarritz.
- Pertsona migratuei zeharkako aholkularitza juridikoa ematea
- Profesionalei aholkularitza eta oinarritzko prestakuntza ematea.
- Getxoko biztanleei aholkularitza ematea aurrez aipatutako gaietan.

ARRETARAKO ORDUTEGIA

Lehen harrerako zerbitzua:

Astelehen eta asteartean: 09:00etatik 13:00etara
Asteazken eta ostegunetan: 15:00etatik 19:00etara
Ostiraletan: 10:00etatik 14:00etara

Zerbitzu espezializatua (aldez aurreko hitzorduarekin bakarrik):

Asteartean: 15:00etatik 20:00etara
Ostegunetan: 09:00etatik 14:00etara

NON GAUDE?



Jose Maria Txabarri-Zuazo plaza z.g., 48930 Getxo



944 660 152



oficinaacogida@getxo.eus



747 424 287



@getxomigrazioa



OficinadeAcogidaGetxo



www.getxo.eus



Erabiltzailea: Guillermo Bringas

1. Nola izan zenuen bulegoaren berri?

Areetan bizi den senide baten bidez.

2. Nola baloratuko zenuke eman dizuten arreta?

Errespetuzko arreta izan da, profesionala eta egokia.

3. Zergatik uste duzu garrantzitsua dela honen moduko baliabideak izatea Getxon?

Babesgabe sentitzen dira beste herrialde batera immigratzen duten pertsonak. Hori dela eta, horrelako erakundeak egotea nora jo behar duzun jakiteko mapa bat izatea bezala da. Mota horretako bulegorik egongo ez balitz, noraezean eta nabigazio-maparik gabe dabilen itsasontzi batera igotzea modukoa izango litzateke.

4. Gomendatuko al zenieke beste pertsona batzuei horra joatea? Ze kontsulta-motarako?

Zalantza barik, migratzaile orori gomendatuko nioke bulego honetara etortzea eta umiltasunez jasotzea bertan elkartasuna erakutsiz lan egiten dutenen aholkuak.



Arreta emateko profesionala: Aichatu Mohamed Yeslem Beissat

1. Zer saiatzen zara lehenengo bileran helarazten?

Konfiantza eta lasaitasuna, pertsonak egoerak partekatzeko espazio segurua dela sentitu dezaten.

2. Zein zerbitzu daude? Zein eskaera jasotzen dituzue?


Eskuragarri dituzten baliabide ugariaren gaineko orientazio-zerbitzua, aholkularitza juridikoarekin batera. Ohiko kontsultak atzerriartasun-prozedurei buruzkoak izaten dira.

3. Berrikuntzarik egongo al da epe laburrera?

Bai, prestakuntza-tailerrak antolatu ditugu. Hurrengo hilabete honen amaieran izango da, Atzerriartasun Legearen erreformari buruzkoa.

4. Zergatik da garrantzitsua honen moduko baliabideak izatea?

Garrantzitsua da etortzen diren biztanleentzat, pertsonentzako funtsezkoak diren gaien (dokumentazioa, errolda, gizarte-zerbitzuak, gizarte-erakundeak, osasuna, hezkuntza) gaineko orientazioa ematea baita helburua. Etorkizun orok eman beharreko urratsak dira eta askoz errazagoa da urrats horiek profesionalen laguntzarekin ematea.

DATA	PROPOSATUTAKO TAILERRA	TOKIA
2022ko azaroak 29 (19:00)	Atzerriartasunari buruzko araudian aldaketak: erregularizatzeko errotzeak.	<p>Jose Maria Txabarri Zuazo plaza z.g. 8. ETA 9. GELAK</p> 
2022ko abendua	Espainiako nazionalitaterako sarbidea	
2023ko urtarrila	Derrigorrezko hezkuntza: hizkuntza-ereduak eta berrikuntzak matrikulazio-prozesuan	
2023ko otsaila	Etxeko zerbitzua: kontratuak, nominak, kitoa	
2023ko martxoa	Baliabideak udalerrian: gizarte-erakundeak	
2023ko apirila	Banku-kontuak	
2023ko maiatza	Ikasketak baliozkotzea eta tituluak homologatzea	
2023ko ekaina	Ziurtagiri digitalak	

DATEI ETA ORDUTEGIEI BURUZKO INFORMAZIOA SARE SOZIALETAN ETA UDAL-WEBGUNEAN ARGITARATUKO DUGU DATAK HURBIL DAUDENEAN. JARRAI GAITZAZU ETA EZ ITZAZU AZKEN BERRIKUNTZAK GALDU!!!

 @getxomigrazioa	 OficinadeAcogidaGetxo	 www.getxo.eus
---	---	---

